


Mikel Ubillos Salaberria

ULIA HISTORIAN, BIDEZ BIDE

SARRERA

Ibilbide honen helburua Ulia mendiaren zehar bidaia historiko bat egitea da eta proposatutako sei geldialdi eginez, zenbait elementu historiko eta paisajistikoen azalpenak jasoko ditugu.

Ibilbidea Mirakruz gainan hasten da, Parada baserriaren ondoan, eta bertatik Ategorrieta auzorantz abiatuko gara, Jose Elozegi Alkatearen hiribidetik behera. Ategorrietatik Uliara igoko gara XX. mendearen hasieran eraikitako tranbiaren bideari jarraituz. Goian, Uliako Interpretazio Zentroa bisitatuko dugu eta ibilbidea bukatzeko Mendiola bidetik Mirakruz gainara jaitsiko gara.



“View of Alsá from San Sebastian road”, 1830
(Gipuzkoako Foru Aldundia)

1. GELDIALDIA: MIRAKRUZ GAINA

Mirakruz gainan aurkitzen gara (bertatik Lezoko Gurutze Santua ikusten omen zelako datorkio izena), Parada baserriaren ondoan eta Arzak jatetxearen parean. Gaina zeharkatzen duen errepidea, Erdi Aroan Donostiatik Errenteriara eta Hondarribira zihoan bidea zen eta bere inguruan baserriz osaturiko nekazal eremua osatu zen. Aro Modernoan, baserri hauetako batzuk oinetxe bihurtu ziren (Parada, Arnaobidao, Gomistegi, Algarbe, Artola, eta abar).



Parada baserria

Ibilbide historiko hau XIX. mende amaieran hasi nahi dugu. M^a Rosario Roquerok Mirakruz gainan 1887. urtean 15 eraikuntza zeudela dio, denera 162 biztanle. Haien artean 12 baserri hauek: Alapunta, Algarbe, Aranzuriene, Fragua, Labeas, Borda-Mirakruz, Mirakruz, Obrador, Parada, Parada Txiki, Txabola, eta Txiskuene.

Urteak igaro ahala, nekazal eremua murrizten joan zen urbanoaren alde, Labeas eta Parada baserriak soilik iraunduz. Horrela, eraikin berriak sortuko dira, hala nola Jaso-kunde konbentua (1885), Arzac-enea (1897), Niño Jesús txaleta (1902), Parada Berri (1907), Algarbe txaleta (1921). Mendi magalean ere zenbait baserri eta txalet eraiki ziren hogeigarren eta hogeita hamargarren hamarkadetan: Azken Portu, Ulialde, Labeas Berri, Timi, Ramón-enea, Inashita, Arana, Guria Baita, Victoria-enea, eta Maldabe. XX. mendeko lehen erdian Miracruz Berri, eta pittin bat aurreago Lanora etxea eta Narcisa edo Adilka txaleta eraiki ziren.

Urbanizazio prozesu horretan eragin handia izan zuen Frantziako mugara zihoan errepide nagusi berria eraikitzeak (1847. urtea) eta ibilbidea Donostiatik igarotzeak. Ordura arte, Errepidea Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Oiartzundik pasatzen baitzen. Mirakruzetik igarotzen zuen jatorrizko errepideak Intxaurren kaleetik eta Ategorrietako Galtzada zaharretik jarraitzen zuen. Egun ezagutzen dugun hiribidearen beharra 1879. urtean hasi ziren ikusten eta 1881-1903 urte bitartean egin zuten. Azkenik, 1950 eta 1953 artean zabalera handitu zuten.

Uliara igotzeko errepidea 1909. urtean eraiki zen eta non hasten den ikusteko Udal Mintegiraino jaitsiko gara, Jose Elosegia Alkatearen hiribidea jarraituz.

2. GELDIALDIA: UDAL MINTEGIA ETA UR-BILTEGIAK



Soroborda

Inguru honetan Al-tza eta Donostia arteko muga zegoen 1940. urtera arte, eta bertan Buskando eta Baroyene baserriak zeuden.

Sorobordan Donostiako Udalak mintegia jarri zuen 1907. urtean. Mintegia inguratzen duen hesia Gipuzkoa Plazan jarrita egon zen 1887-1907 urte bitartean. Mintegiaren sarre-ran, Zeres nekazaritza-

ren erromatar jainkosaren harrizko irudi batzuk daude buruan dorre bana erakutsiz.

Mintegiaren azpian ur-biltegiak daude, Ulia mendiaren urak hiriko horniketan eduki duen garrantziaren erakusgarri.

Donostiak 10.000 biztanle zituen 1848. urtean. Ur beharra gero eta handiagoa zen eta Morlansetik eta Urguletik ateratzen zuten ura ez zen nahikoa. Orduan, Joaquín Ramón de Etxebeste arkitektoak ura Moneda eta Lapatzandegi baserrietatik ekartzea proposamena onartuz, 1850. urtean ubidea eraiki zen. Urte horretan Donostiak 14.600 biztanle kopurura heldu zenez, obrak ez zituen ur hornidura arazoak konpondu eta Etxebeste arkitektoak Uliako ipar isuritik ura ekartzea proposatu zuen. Antonio Cortazarrek 1862-1865 urte bitartean burutu zuen proiektua, Errotaxar iturritik Atximagaina muinoaren barren-barrenetik Aitzondo tunela eraikiz. Jarraian, 1869. urtean, Ingeles iturritik ura ekartzen hasi ziren. Urte horretan ere Soroborda ur-biltegiaren eraikitze lanak abiatu ziren eta 1872. urte artean amaitu. Ulia mendiaren itsasaldeko isurian dauden bi akueduktuak 1878an eraiki ziren. Ur-hornikuntza sistema osatzeko Txoritokietatik Sorobordara ura ekartzeko beste ubidea egin zen 1881. urtean eta Buskandoko ur-biltegiak eraiki ziren 1895-1900 urte artean.

Uliako errepidetik gora hainbat eraikuntza interesgarri aurkituko ditugu, hala nola Barbotegi, Arrieta, Martintxone, Lapatxandegi, Mirall, Bordetxipi, eta Ximoene.

Gure ibilbidearekin jarraituz, Ategorrieta auzora jaitsiko gara.

3. GELDIALDIA: ATEGORRIETA

Geldialdi honetako azalpenarekin hasteko XIX. mendera atzera egingo dugu. Garai hartako nekazal eremuan hainbat baserri zeuden: Baderas-Etxeberri, Baderas, Baderas-Tolare, Berekalte, Etxeluze, Sastene, Vandome, Martillun, Matxiñene, Itundegi, Gurutzeta, Etxetxun, Gorraene eta Gorraene-txiki. Baserri hauen artean, ateak eta leihoak gorriak zituen baserri bat nabarmentzen zen eta hortik hartu omen zuen auzoak “Puertas Coloradas” edo “Ategorrieta” izena.

Mirakruzen bezala, XIX. mendearen amaieran nekazal eremua aldatzen hasi zen, baserriak desagertuz eta eraikuntza berriak sortuz: Notre Dame (1882), Soro Txaleta (1899), Aingeru Zaindariaren eliza (desagertua), Salelaseko konbentua (gaur egungo Intxaurrondo kalean, eta garai horretan Irungo bidea zena).



Toki Alai etxea. Ategorrieta

XX. mendeko lehenengo hamarkadan Ignacia Txaleta (desagertua), Iturricho, Matilde eta Las Rosas (gaur egun Goñi-enea) eraiki zituzten, eta bigarren hamarkadan: Toki Alai, Toki Alai Berri, Ahaldundiko eraikuntza, Leku Eder, Leku Eder berri, eta Toki Onena (Gurutzeta Berri edo Trinke Zarra, 1985. urtean botatakoa), Iris (desagertua) eta Carmentxu txaletak.



Tranbiaren geltokia

XXI. mende hasieran hirugarren aldaketa ematen ari da, zaharren egoitzaren eraikinarekin eta Atarizar kalean egindako etxeekin.

Toki Alai etxearen atzean, Ategorrietako tranbiaren geltokia dago. Uliara igotzeko tranbia 1902an eraiki zuten. Tranbidearen luzera 3.080 metrokoa zen, eta aldaparen malda % 6koa zen. Tranbiak 1918. urte arte funtzionatu zuen.

XIX. mendean Erreenteriara joateko tranbia jarri baino lehen, bide honetatik egunero bi diligentsia soilik pasatzen ziren. Herrerako tunela 1886. urtean eraiki zen eta lehenengo tranbiak 1888eko ekainaren 25ean igaro zen bertatik. Animaliek tiratutako tranbiak tranbia elektrikoen-gatik ordezkatu ziren 1897. urtean. Erreenteriako tranbiak 1958. urtean egin zuen azken bidaia, trolebusengatik ordezkatuak izan zirenean.

Gure ibilbidera itzuliz eta Uliako Tranbiaren bidea jarraituz, eraikuntza hauekin topo egingo dugu: Iturriaga etxea (1922), Quemada etxea (1934), Burnibide (1905), Ezkerrene (1908), Etxe Zuri (1923), Ideal etxeak (1914-1916), Mimosa, Gurutze Txiki, Solaneta, eta bukatzeko Arbola baserria, zeina urte askotan “Iradi Merenderoa” izan zen.

Ulia menditik gora goazela, zenbait paraje ikus ahal ditzakegu: Monpas, Txillardi, Loitxikiko edo Lobio erreka, eta Mendikoetxeberrigaina. Azken honetan tranbiaren goiko geltokia dago, gure ibilaldiaren hurrengo geldialdia.

4. GELDIALDIA: TRANBIAREN GELTOKIA ETA TRANSBORDADOREA

Mendikoetxeberrigainan kokatzen zen goiko tranbiaren geltokia. Bere ondoan jatetxe bat zegoen, eta 1907. urtean Torres Quevedok Uliaren tontorreraino igotzeko transbordadorea eraiki zuen. Bere ibilbidea 280 metrokoa zen, altuera: 28 metro, eta 18 pertsona garraia zitzakeen. Transbordadorearen zerbitzua 1912an eten zen.



Transbordadorearen geltokia



Ibilaldi honi buruzko hitzaldia Uliako Interpretazio Zentroan


5. GELDIALDIA: ULIAKO INTERPRETAZIO ZENTROA

Donostiako Udalak 2011. urtean ireki zuen zentroa, Ulia mendia bisitariei ezagutzera emateko, mendi honen ingurune fisiko, natural eta historikoan sakonduz.

Ulia mendia interpretatzeko zentroa bisitatuko dugu eta, bisitaren ostean, Mendiola biderantz abiatuko gara.

6. GELDIALDIA: MENDIOLA BIDEA

San Juan auzoan egingo dugu geldialdia, mendi tontorraren ondoan dagoen etxe multzoan. Auzoko eraikuntza gehienak XX. mendeko 20 eta 30 hamarkadetan eraiki ziren: Irigoyen-enea, Urrutitxo, Hego-aizea, Bermina baserria, Prudentzia-enea baserria, Lorelar, Etxe Txiki, Vista Alegre, Aize Ona, Tenan edo San José (1914-1917)



Mendiolatik ura ekartzeko 1850. urteko proiektua

Inguru honetatik Ulia mendiko gune interesgarrietara heldu gaitezke: Txurrerokogaina, Atximasgaina, Herri Ametsa Ikastola, Mendiola, eta Illurgita badia. Azken toponimo hau, Illurgita, XII. mendean Nafarroako Antso III.a erregeak Leireko Monastegiari egindako eskaintza batean agertzen dena, Ulia mendiari buruzko lehen erreferentzia historikoa kontsidera daiteke.

Ulia mendia osotasunean hartuta, Pasaiaiko kanaltetik Monpaseraino heltzen da, azken hamarkadotan, ordea, Bidebieta-Trintxerpe-San Pedro gainean dagoen mendialdea Mendiola izenez ezagutzen da, Mendiola baserri eta merendero ezagunetik hartua. Aipatu ere, Mendiola baserriaren izena ere nahiko berria dela, aitzina Gurutzeta deitzen baitzen eta jabe



Mirakruz gaina

berriaren abizenarekin berrizendatu zen. Gurutzeta izena, bestalde, Mendiola gainaren beste izen batekin erlazionaturik dago, 'Monte de las Cruces', XVIII. mendeko mapetan irakurri dezakeguna.

Mendiolako lurren ustiapena nekazaritzari, abeltzaintzari eta harrobiei lotua egon da. XV. mendetik aurrera, dokumentuetan ikus dezakegu nola, itsasoko merkataritza eta arrantza garrantzia hartzen doan neurrian, sagastiak nagusitzen doaz hegoaldera ematen duen mendi magalean, basoari eta abeltzaintzari lurak kenduz. M^a Rosario Roquerok honela dio: "En el año 1681, según esta vez el Almirante Vargas Ponce, los cuatro navíos "San Pedro, N^a Sra.de Aranzazu, N^o S^a de Begoña y el de San Juan" cargaron dos barricas y media de sidra por cada tripulante, y una de chacolí por cada cuatro hombres (el chacolí se cultivaba en las laderas de Ulía, en parte también jurisdicción de Altza)."

Itsasaldeko isurialdea, bestalde, herri lurak ziren eta bertatik baserrien beharrak asetzeko egurra, otea eta bestelako produktuak ateratzen ziren.

Mendiolan, Ulia osoan bezala, harrobiak ere ugariak izan dira historian zehar eta, horrela, Mendiola bidetik jaisterakoan, Labeas baserriaren ondoan zegoen harrobiaren aztarnak ikus ditzakegu.

Bidetik behera, laster batean, Mirakruz gainara helduko gara, gure ibilaldiari bukaera emanaz.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA: Altza XIX. Mendeko kroniketan / Altza en la prensa del siglo XIX. Altza, 2008.

GÓMEZ PIÑEIRO, Javier; ORELLA, José Luis; SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio; ROLDÁN GUAL, José María; ARAMBURU, José María: Documentos Cartográficos históricos de Gipuzkoa I. Servicio Geográfico del Ejército. Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia, 1994.

GÓMEZ PIÑEIRO, Javier; SÁEZ GARCÍA, Juan Antonio: Documentos Cartográficos Históricos de Gipuzkoa II. Servicio Histórico Militar. Diputación Foral de Gipuzkoa. Donostia, 1999.

HERRERAS MORATINOS, Beatriz: Altza, historia y patrimonio. Artiga Bilduma 4, Altzako Historia Mintegia. Altza, 2001.

JOXERRA: "Ulia: Ibilbide bat itsas ertzetik". Altza, Hautsa Kenduz III (1996). Donostia. Altzako Historia Mintegia. 141-146 orr..

INGEBA: Ulia. Donostiako Udala. Donostia, 1991.

MENDIZABAL ETXEBERRIA, Antonio: José Goikoa, Arquitecto, Autor de San Sebastián. Doctor Camino. Kutxa Fundazioa. Donostia, 2003.

MUÑOZ ECHABEGUREN, Fermín: San Sebastián, el monte Ulía y arenales, ayer y hoy. Ed. Doctor Camino (Kutxa Fundazioa). Donostia, 2009.

MUÑOZ ECHABEGUREN, Fermín: Historia del Barrio de Gros. Euskadiko Kutxa, Donostia, 2000.

MUÑOZ ECHABEGUREN, Fermin: El agua potable en la historia de San Sebastián /Edateko ura Donostiako historian. Aguas del Añarbe S.A. Donostia, 2003.

MUÑOZ PEÑA, Pablo: Puertas Coloradas. Tarttalo. Donostia, 2009.

ROQUERO USSÍA, M^a Rosario: La vida cotidiana en Altza en los siglos XVII y XVIII. Artiga Bilduma 2, Altzako Historia Mintegia. Altza, 1997.

ROQUERO USSÍA, M^a Rosario: La vida de Altza a través de sus actas municipales 1843-1900. Artiga Bilduma 5, Altzako Historia Mintegia. Altza, 2002.

SADA, Javier María: Cien años de transporte al servicio de la ciudad / Garraioa ehun urtez hiriaren zerbitzuan. Compañía del Tranvía de San Sebastián 1887-1987.

SADA, Javier María: 75 años entre Ulia y Gros. San Sebastián. Sociedad Deportiva Gimnástica de Ulia. 1992.

TELLABIDE AZKOLAIN, Josu: Donostiako Toponimi erregistroa. Registro toponímico Donostiarra. Kutxa. Donostiako Udala. Donostia, 1995.

VIERA Luis I.: "Geología del término de Altza". Altza, Hautsa Kenduz IV. (1997) Donostia. Altzako Historia Mintegia. 75-80 orr..



Ibilbidearen planoak



Ulia historian, bidez bide (<http://eu.wikiloc.com>)